AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1781

599/2013 EBAZPENA, martxoaren 21ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena. Honen bidez, Jesús María Mongelos Ramírez jauna Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostutik kentzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren ekainaren 5eko 704/2012 Ebazpenaren bidez, Jesús María Mongelos Ramírez jauna izendatu zen Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostua betetzeko.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jesús María Mongelos Ramírez jauna, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostutik kentzea, egindako zerbitzuak eskerturik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2013ko martxoaren 31tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuari, Arabako Eskualdeari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 21a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON ETXEBERRIA CRUZ.